

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK MERKATARITZA SEKTOREA LAGUNTZEKO MAHAIA OSATZEARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluekin bat etorriz, EH BILDU udal taldeko bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak jarraian adierazten den MOZIO ARRUNTA aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Merkataritzak, sektore ekonomiko bezala, garrantzia handia du. Donostiako Sustapenak orain gutxi argitaratu duen 2015eko txosten ekonomikoaren arabera, merkataritzak hiriko ekonomiaren %12 hartzen du bere gain, eta 13.384 lanpostu barnebiltzen ditu. Gipuzkoan datuok, hurrenez hurren, Eustaten arabera, %13,4 eta 42.504 lanpostu dira.

Hain sektore handia izanda, kinka larri batean murgiltzen ari da hainbat faktoreren ondorioz; horietatik nabarmenenak honako hauek dira:

- Merkataritza txikien interesak defendatzeko, merkataritza elkartetako bazkidetzea txikia da.
- Lege laboralak direla-eta, distribuzio enpresa handiek Estatuko hitzarmenak aplikatzen dituzte, Gipuzkoako hitzarmenaren azpitik.
- Internet bidez egindako erosketak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren utzikeria.
- Hirigintza planak, sektore komertzialei begira, merkataritza gunen handien mesedetan.

Egoera kezagarria da: Donostian lokalen %25 itxita dago eta Gipuzkoan %26,40. Testuinguru honetan, Garberako zabalkundeak zer suposa dezake?

Ikusmer-ek, Jaurlaritzaren behatokiak, 2014ko txostenean adierazten zuen Euskal Autonomia Erkidegoa merkataritza guneei dagokienez saturazio puntuan zegoela, oreka puntuen ginetik (SBA 325m2).

Horrez gain 121/2016 Dekretuak, Donostiako Eremu Funtzionalaren lurralde plan partzialak, 35. artikuluan (Udalaren hiri-plangintzan antolatu beharreko jarduera ekonomikoetarako lurzorua kuantifikatzea) horrela dio: "Egiazta

daiteke Lurralde Plan Partzialaren hurrengo 16 urteetako (2016-2031) udal plangintzan gaur egun planifikatutako erreserbak behar adinakoak direla, nahiz eta harrotze-faktore oparoa aplikatu eskaintzaren zurruntasuna zuzentzeko faktore gisa". Eta XI. kapituluan c) Merkataritza: "Saltoki guneen dimentsionamendu txikiagoren alde egiten da eta, horrenbestez, eremu funtzionalaren ezarri beharreko merkataritza-ekipamenduen zatikatze espazial handiagoaren alde."

Bestalde Europako Batzordeak, Merkataritzaren Liburu Berdean, adierazten du merkataritza txikiak hirietan gero eta eragin handiagoa duela gizarte kohesionatu eta hiri konpaktua lortze aldera.

Halaber, txosten eta ikerketa askok argi diote merkataritza gune handi gehiegi izateak arazoak sortzen dituela enpleguan, hiriko kaleko bizitzan, ingurumenean, mugikortasunean eta abarretan.

Egoera honetan, jakinda ekonomikoki jokoan zer dagoen, hainbat merkataritza elkartek Gipuzkoako Aldundiari merkataritza mahai bat osa dezan eskatu diote, turismo arloan horrelakorik egin duela ikusita, eta sektore honen garrantzi ekonomikoa kontutan hartuta.

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Merkataritza Mahaia eragile guztiekin osa dezan, etorkizunari begira sektore ekonomiko honek dituen erronkak eta arazoak lan ditzan.

Donostian, 2016ko irailaren 8an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EHBildu udaltaldeko bozeramailea